


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ZTF-FCT

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología



Euskadi
2006

GRADU AMAIERAKO LANERAKO GIDA LABURRA

IIL

AURRETIKO IZEN-EMATEA/GAIAREN ESLEIPENA

1. *Aurretiko izen-ematea.* Uztailaren erdialdean, ikasleek Zientzia eta Teknologia Fakultateko GrALaren web orrialdean dagoen formulario baten bidez aurretiko izen-ematea egingo du. Aurretiko izen-ematea egin behar dute irailean inskripziorako baldintzak beteko dituztela pentsatzen duten ikasleak. Aurretiko izen-emateak jasota, GrALeko koordinatzaileak Gradu bakoitzean horietako zenbait eskaini behar diren zehaztuko du.
2. *Gaien proposamena.* Iraileko lehen astean ikastegiko irakasleek Gradu Amaierako Lanak proposatuko dituzte beren GAUR profilaren bitartez ([GAUR/Gradu amaierako proiektuak-Gradu amaierako lanak](#)).
3. *Gaien onarpena.* Iraileko bigarren astean, Gradu Amaierako Lanen koordinatzaileak horien eskaintza balioetsiko du.
4. *Izen-ematea.* Iraileko hirugarren astean ikasleek izena emango dute beren GAUR profilaren bitartez ([GAUR/Gradu amaierako proiektuak-Gradu amaierako lanak](#)).
5. *Gaiaren esleipena.* Gaiaren esleipena iraileko laugarren astean egingo da; ikasleak eta zuzendariak mezu elektronikoko bat jasoko dute bere helbide elektronikoko instituzionalean adjudikazioa eginda dagoela adieraziz.

MATRIKULAZIOA/DEFENTSA

1. *Matrikulazioa.* Ikasleek GRALerako matrikula egingo dute behin irakasgai guztiak gaindituta, fakultateko egutegian adierazitako datetan. Matrikulazioa ikasleen GAUR profilaren bitartez egingo da ([GAUR/Matrikula/GAP-GRAL](#)).
2. *Defentsaren eskaria.* Matrikulazio astean, ikasleek defentsa noiz eta zein hizkuntzatan egingo duten zehaztu beharko dute beren GAUR profilaren bidez ([GAUR/Gradu Amaierako Proiektuak-Gradu Amaierako Lana/Adjudikazioak](#)).
3. *Tutorearen txostena.* Matrikulazio astean, eta behin ikasleek defentsaren eskaria bete duten, tutoreak aurretik zehaztutako ereduaren arabera txostena bidali beharko du



- bere GAUR profilaren bidez (GAUR/Gradu Amaierako Proiektuak-Gradu Amaierako Lana/Berrikusi defentsa-eskaera).
4. *Gradu Amaierako Lana entregatzea.* Deialdian zehaztutako datetan, ikasleek GRAL-aren memoriaren kopia bat .pdf formatuan igo beharko du ADDI plataformara (<https://interno.addi.ehu.es/>).
 5. *UPV/EHUko plataforma digitalean (ADDIn) lana aurkezteko baimena.* Ikasleak eta zuzendariak eranskina sinatuta entregatu behar dute idazkaritzan.
 6. *Epaimahai ebaluatzaileak.* Matrikulazio epea amaituta, GRAL-en koordinatzaileak deialdi bakoitzerako beharrezkoak diren epaimahaiak ezarriko ditu (ikus defentsarako datak fakultateko egutegian), eta Ikastegiko Idazkaritzari jakinaraziko dio. Epaimahaiak ADDI plataformaren bidez .pdf formatua duen kopia bat izango du eskura (<https://interno.addi.ehu.es/>).
 7. *Defentsarako data eta lekua.* Behin Ikastegiko Idazkaritzak epaimahai ebaluatzaileak ezarri dituen, GRAL-en koordinatzaileak defentsarako daten eta lekuen berri emango du bere GAUR profilaren bidez (GAUR/Gradu Amaierako Proiektuak-Gradu Amaierako Lana/Proiektuak/Defentsarako data-lekuaren esleipena).
 8. *Ebaluzioa eta aktak.* Epaimahaiak ebaluazio-irizpideak jarraituko ditu lana ebaluatzeko. Epaimahaiaren idazkariak nota GAUREn sartu eta berrikuspenerako epea finkatuko du. Berrikuspenerako epea agortuta, epaimahaiko idazkariak kalifikazioa espedientera pasatuko du, epaimahaiak akta elektronikoki sinatuko du eta idazkariak epaimahaia osatzen duten kideek sinatutako ebaluazio-errubrika Idazkaritzara bidaliko du.